

Politika

Mapa honetan ikus daitezkeen olatu osatuak Erromatarren Inperioa **lehen fundazioetatik**. Gainera, informazio gehiago lor dezakezu bai Euskal Herriaren anexion prozesuaz, bai eta erromatarren garaian gure lurraldeak zuen **antolaketa politikoaz ere**. Ikus dezakezunez, K.o. I. mendean, Inperioak bere hedaturarik handiena erdietsi zuen.

Lehen fundazioak

Hispaniaz jabetzeko prozesuan, Erromarekiko lehen harremanak izan zituzten Euskal Herriko herriek. Hasieran bi probintzietan banatu zuten penintsula: Hispania ulterior eta Hispania citerior. Ebro ibaiak egiten zuen bien arteko muga, eta Euskal Herria *citerior* horren barnean egokituz. Inguru honetako hiri sorrerarik antzinakoena K.a. 178koa da: Gracchuris (Alfaro, Errioxa). Gero, Pompeiok bi hirigune garrantzitsu sortu zituen Pirinioen bi aldeetan: Pompaelo (haren izena zeramana, K.a. 75-74an sortua) eta Lugdunum Convenarum (St. Bertrande de Comminges). Bi-abiak erromanizazio-gune garrantzitsuak izango ziren.

Pompaelo: Sertorioren gerren garaian (K.a. 81-72), Pompeio baskoien lurraldera erretiratu zen. Bertan, aurreko bizigune baten gainean, ezarri zuen bere kuarter nagusia, eta hortik Pompaelo hiria sortu zen. Izen hori Pompeiopolis-etik dator, hots, Pompeioren hiria. Haren kokalekua estrategikoa zen, zeren eta Akitaniarako bidea kontrolatzen baitzuen bertatik. Erromatarren Pompaelo hiriak 15 hektareako zabalerak zuen. *Decumanus* edo ekialde-mendebalde ardatza egungo Curia kaleari zegokion, eta era berean foroak egungo katedralaren aldea hartzen zuen.

Antolaketa politikoa

Konkista prozesua amaiturik, neurri politikoak etorri ziren. Bertako etniak – **barduliarak, karistiarak, beroiak, baskoiak eta autrigoiak**– kontuan hartu gabe, Erromak administrazio-banaketa berria ezarri zuen. *Citerior* izeneko probintzia, Tarracense (Tarraco, Tarragona, hiriburu) deitua izatera pasa zen, eta probintziak *conventus*etan banatu ziren. Hala, Euskal Herriko zati bat *conventus cluniensis* (Clunia, Coruña del Conde, Burgos, hiriburu) deiturikoaren barnean geratu zen; beste zati bat, *conventus caesaraugustanus* (Caesaraugusta, Zaragoza, hiriburu) izenekoaren barnean zegoen, eta akitaniar herriak Aquitania probintzian bildu zituzten.

74.-75. urteetan, Iberiar penintsula osoari eman zioten latindar zuzenbidea, eta, hiriek, administrazio garrantzi handiagoa hartu zuten. 212. urtean, **Karakala** enperadoreak *Constitutio Antoniana* eman zuen, eta probintzietako biztanle libreak Erromako hiritar bihurtu ziren.

Barduliarrak: Erromatarren aurreko herri bateko kideak ziren; Arabako ekialdean eta Gipuzkoako zati handi batean bizi ziren. Tullonium (Dulantzi) eta Alba (Durruma Donemiliaga) izan ziren haien herri garrantzitsuenetarikoak.

Karistiarrak: Autore klasikoek aipatu zituzten erromatarren aurreko herrietarik bat ziren. Arabako mendebaldea, Burgosko ipar-mendebaldea, Bizkaiko mendebaldeko mugaldea eta Kantabriako ekialdeko mugaldea ziren haien kokalekua. Hona haien herririk garrantzitsuenetariko batzuk: Deobriga (Cabriana) eta Flaviobriga (Castro Urdiales) koloniako hiria eta portua.

Baskoiak: Erromatarren aurreko herria, egungo Euskal Herriko hainbat eskualdetan hedaturik zuten: Nafarroa osoan, Gipuzkoako ipar-ekialdeko mugaldeen eta beste zenbait eskualdetan. Hona haien herrigunerik garrantzitsuenak batzuk: Pompaelo, Cara (Santakara), Andelos (Andion) edo Olassongo portua (Irun).

Beroiak: Erromatarren aurreko Euskal Herriko herri bat zen. Toloño mendikateko hegoaldean bizi ziren; hala, beraz, La Hoya-ko herrixka (Biasteri, Araba) talde horri zegokion. Orobat, gaur egungo Errioxa Autonomia Erkidegoan kokaturik zeuden. Hona bere errien herri garrantzitsuenak: Vareia (Varea), Libia (Herramelluri), Contrebia Leukade (Inestrillas, Cervera del Río Alhama).

Autrigoiak: Erromatarren aurreko herria, Araba eta Bizkaiko mendebaldean bizi ziren, bai eta Kantabriako ekialdean, Burgosko ipar-ekialdean eta Errioxako ipar-mendebaldean ere. Karakala: Marko Antonio Antonino Augusto, Karakala ezizenez, severoen leinuko enperadorea, 198-217 bitartean izan zen aginpidean.